

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1992ko Martxoak 13, 142. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**Iñurrategitarrak eta Zubizarreta**

# Abuztuan Everestera

Jabier



A R R A S A T E  
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



# A

steburuan izan da herrian horrelakoak ikusteko aukerarik. Txikienetik hasi eta handienetara, denak bixi-bixi jantzita, finoaren berotan eta musikaren giroan berotuta. Loreen edertasuna gizakien apain-garri, aideratzeko aproposak diren bolantez eta kolorez jositako soinekoak,

pultsera, peineta eta abarrez lagunduta. Begirada tinkoa eta aurpegiko seriotasunak azal eta ule beltzaranakin topo egiten dute, bere gaztetasuna heldutasun itxuraz mozo-rrotu arte... printzesa andaluziarren xarma, zer bestela? eta inora joan barik, hementxe bertan.



Jabier

**Elkarlanari ekinez...**

## **BI AUKERA BERRI HAUR HEZKUNTZAN**



- **4 hilebetetatik aurrera**
- **San Josepen**
- **Ordutegi eta egutegi zabala**  
San Josepe z/g eta J. L. Iñarra, 30-32  
Tfnoak: 79 0102 / 79 71 22



- **2 urtetik aurrera**
- **Auzoetan (Musakola, Olarte, Uribarri)**  
Gazteluondo, 4  
Tfnoak: 79 26 40 / 79 41 22

**MATRIKULA EPEA ZABALIK!**



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

## Erredakzioa:

Benardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

## Publizitatea eta harpidetzak:

Kepa Olden. Amaia Sanz  
Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia,  
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

## Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Liderrak

**K**atalunyako hauteskondeak direla eta, hautagaien gaineko berezitasunak azaltzen zituen artikulu bat irakurri berri dut, aldizkari batetan. Mediterraneo aldean, kantauriko partean bezalaxe, era bereziz eratzen dituzten euren norgehiagoketa politikoak, izan ere— alderantzizkoa ustearazi nahi izango diguten arren— autoktonoek eta sukurtsalistek ongi bait dakite katalandar eta «baskoak» batazbesteko normatik desmarkatzen direna.

Betidanik erakarri nau, hautagaiak plazara irten eta euren gan suma daitekeen gizaitxuraldaketak. Berdin zait bertako ala parakaidista izatea. Biek klabe eta taktika antzerakoak erabiltzen dituzten, mezu desberdina helerazteko. Ez dakit antzerakotasun horrek, hautagai diferenteek botoemaldekiko izan ditzaketan intseguritate edota lotsagabekeria adierazten duen. Baina, behintzat, tipoari ez zaio era berean aditzen, lasaitasunean edo boto-ehizaldian.

Leinu bereko kide izateak bere garrantzia ei zuen aurreko belaunaldietan. Gaurrungen, ordea, hiritartasunak galerazi egin du sentimendu hori eta ez dira gogo-lokarriak hain beharrezkoak. Batzuk «hemen» bizi

dira baina ez dute «hemengoa» bizi izaten; arestian gure gobernuo kide batek besteentzat aldarrikatu duen katarsia falta zaie gobernuan betierekotzen direnei. Pertsona bakarti, autozokoratu, etsia eta paranoikoa bilaka daiteke. Beste batzuk, berriz, ez dute euren hautesleekiko inolako erreferentziarik azaltzen, ezta tokiko-tasunarena ere.

Batzuek eta besteak, ordea, identifikapen prozesu azkar batetan murgilduko dira: kanpainako iraupen berbera izango duen prozesu laburrean, hain zuzen. «Nitaz fida zaitzke» esaera hutsa adierazten digun liderrak, gero eta mesfidantza handiagoa ermerazten du gugan, ezen liderraren gainean dugun ezagupide-tzak neurtuko bait du harekiko gure konfidantza eta ez, noski, aintzindari makilatuak telebistako dekoratu ederretik eletzen digun hitz jarioak.

Giza-bilakaeran garatu den defentsa sistemak zirkulu egokiak sortu ditu, gure nortasunaren ardatz inguruan. Haien artean identifikapena bitarteko baliotsua bihurtu da. Horregatik, hain zuzen, lidergoaren jarrera mozorratutik bideratzen zaigun diskurtsuak erdeinua, deslilura eta antagonismoa pizten ditu beti.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

**Memesa**  
**79 42 22**

**Pando**

**PINTURAK eta  
PAPEREZTAPENAK**  
Aragoi, 6-3. Esk.  
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

Erdiko kale. 79 19 37

**ILEA**

Ferrerias. 79 87 62





**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

### Jaialdiaren ondoren

Igandea da. Aurtengo Haratuzteak aurrera doaz. Atzo bertan "Playback Jaialdian" egon nintzen. Parre ugari bota nuen, benetan ondo egon zen eta txalotzekoa da bertan egin den lan guztia.

Jaialdia hasi aurretik Senideakeko partaide batek komunikatu bat irakurri zuen: "Salto del Negro" Kanariaseko espetxean 17 preso gose greban daude, hoietako bi, J.M. Zabarte eta Pedro Guridi, arrasatearrak. Egoera gogorra, bai eurentzako, noski, eta baita euren senitartekoentzat ere. Ez naiz hemen eritzi politikoekin luzatuko. Eskutitz hau asmo bakar batekin idatzi dut, hauxe hain zuzen: irakurritako komunikatuaren ondoren entzun ziren txalo guztiak bai zuei eta zuen senitartekoei elkartasun guztiaz bidaltzea.

IRAKURLE BAT

### Bakeaz

Bakeari buruz gauza asko esan daitekeela jakin arren, neuk ere lerro hauen bidez irazkin batzuk egin nahi nituzke.

Azken bolada honetan, sarritan entzuten da talde politiko baten adierazpenetan, benetako bakea negoziazioaren bidez etorri behar dela. Esan beharra dago ni ere printzipioz, ados nagoela planteamendu horrekin. Hala ere, nik ez dut ulertzen egin litekeen negoziazio hipotetiko horretan, Euskal Herriaren ordezkaritza talde armatu baten eskuetan utzi beharko litzatekeela esaten dutenean. Zergatik? Armak erabiltzen dituztelako? Nondik datorkio eskubidea talde horri? Lor daiteke, benetan bakea, gertatutako azken sarraski horiekin?

Nire ustez behintzat, bide horretatik ez dago irtenbiderik. Eskerrikasko.

ARRASATEARR BAT

oso ondo egiteaz gain, Arrasateko giro ezberdinetako jendea platoratzen ahalegintzen delako —agian hor dago programaren erakargarritasuna— eta bigarrenez, besarkada bero bat lau gonbidatuei beraien burua andaluz edo estremeño sentitzeaz gain euskaldun ere sentitzen dutelako eta Euskal Herria ez dutelako berain gurasoen herriagatik aldatzeko tamañan.

Utzidazue publikoki neure ezustekoa azaltzen euskara maila dotoreagatik eta utzidazue burutapen bat egiten ere.

Zuen euskara mailaren arrazoietakoa ikastolatan ikasi duzuela bada, baduzue zuen elkarte barruetan lan handia egiteko aukera eta premia. Hemendik aurrera bi kulturen arteko sinbiosisa lortzeko adibide garbiak zarete zuek. Erakutsi Arrasateri zein posible den kultura bien oreka lortu ahal izatea. Erakutsi gazteen artean ez dagoela regionalismorik eta denok zaretela euskaldun ere!

G.A.

### Zuzenketak

Aurreko asteko alean izan ziren zenbait akats, zoritxarrez, eta afektatuei barkamena eskatzeaz gain, zuzendu ere egin nahi genituzke:

- Kepa Ormaetxearen artikuluan azken zatian "etsaiaren bakeak" dioen lekuan "etsaiaren balek" behar du.

- Juanito Egidazu "Kurri"ri izena aldatu genion, eta Jesus deitu.

- Eskoriatzako kronikan "Alex Ezpeleta" zioen lekuan "Alex Belategi" behar zuen. Barkamenak eskatzen dizkiogu familiari.

- "Besteei begiratu gabe, feminismoarekin edo feminismorik gabe" jarri genuen Sagra Lopezen ahotan. "Emakume artean kontzientzia feminista sortzea eta emakume artean lan egitea gure arazoak konponduz joateko eta orokorrean beste sektoreekin batera gizartea estrukturaliki aldatzeko borrokan egitea" esan zuela zuzendu digu.



**DAMKAR'T**

Estetika eta ileapaintzaile  
Eskola  
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.  
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

**ARAMAIO**  
**okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

### Al Andalus eta Corazón de Encinarekin Txatxaran

Aurreko astean ATBko Txatxaran programan ikusi ahal izan nuen giroak, animatu egin nau karta hau idaztera. Lehenik eta behin, Maider Egues zoriendu!

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduktzioa  
Offseta

Ferrerias, 23  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

**BAKAILO ETXEA**

Makailoa eta beroni buruzko produktuak  
Makailoa, krocketak eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07




# Kontsumitzaileen eskubideak erabiltzen dituzu?




**Cecilia Hinojal**  
(Etxekoandrea)

Bai, baina kejarik jartzekotan erositako dendan bertan jarri ditut eta orain arte ondo irten zait.



**Julian Elorza**  
(Pentsioduna)

Batzutan tokatu zait zerbait erosi eta txarra irtetzea baina ez dira izan gauza inportanteak eta inoiz ez dut protestatu.




**Eulogio Fernandez**  
(Jubilatua)

Denok gara indarrez kontsumitzaileak, inposatu egiten zaigu eta zerbait txarra irtetzen bada, aguantatu egin behar.



**Silvia Solana**  
(Langabea)

Bai, baina zuzenki ez naiz inoiz kontsumitzaileen bulegora joan, beti dendetan egiten ditut kejak.




**Aitor Bergaretxe**  
(Mekanikoa)

Bai, protestatzea ere tokatu zait. Baina halako iruzurrak behin baino gehiagotan izan ditut eta behin bakarrik protestatu dut.



**Amalia Jesus**  
(Etxekoandrea)

Ez dut inoiz protestatu baina produktua txarra izatea askotan tokatu zait, aguantatu egin behar.



**Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak**  
**Otzaratzarrak**  
**Giltzak gordetzeko armairuak**  
**Erremintak eramateko gurdiak**  
**Erremintak gordetzeko armairuak**  
**Lan egiteko aukerak**

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza-terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe-bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

**PUB HAIZEA**



arrasate



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXÉAK**

|   |          |
|---|----------|
| Arrasateko Eskualde-Ospit. ....         | 79 53 00 |
| Igualatorria .....                      | 79 05 00 |
| Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... | 79 39 00 |
| (emakumeak) .....                       | 79 44 11 |
| Buru osasunerako zentrua .....          | 79 90 11 |

**GURUTZE GORRIA**

|               |          |
|---------------|----------|
| Bergara ..... | 76 55 76 |
|---------------|----------|

**DYA**

|                |          |
|----------------|----------|
| Antzuola ..... | 76 62 91 |
|----------------|----------|

**ANBULATORIOAK**

|                              |                |
|------------------------------|----------------|
| Arrasate (Larrialdiak) ..... | 79 13 57       |
| (Txanda hartzeko) .....      | 77 03 46       |
|                              | 77 07 21       |
| Oñati .....                  | 78 08 52       |
| Eskoriatza .....             | 79 98 58       |
| Aretxabaleta .....           | 79 74 58       |
| Aramaio .....                | (945) 45 51 16 |

**ANBULANTZIAK**

|                                |          |
|--------------------------------|----------|
| Gipuzkoako ambulanziazak ..... | 45 87 44 |
|--------------------------------|----------|

**UDALTAINGOAK**

|                    |          |
|--------------------|----------|
| Oñati .....        | 78 04 11 |
| Bergara .....      | 76 14 69 |
| Arrasate .....     | 79 14 39 |
| Aretxabaleta ..... | 79 10 52 |
| Eskoriatza .....   | 79 03 22 |

**ERTZAINZTA**

|                |          |
|----------------|----------|
| Arrasate ..... | 79 71 99 |
|----------------|----------|

**SUHILTZAILAK**

|                                      |          |
|--------------------------------------|----------|
| Udal taldea .....                    | 79 09 00 |
| Udal taldeko suhiltzaile burua ..... | 79 20 72 |
| Zubillagako Eskualde-Parkea .....    | 78 28 00 |

**MATXURAK**

|                                  |              |
|----------------------------------|--------------|
| Urak (udal zerbitzua) .....      | 79 09 00     |
| Elektrizitatea (Iberduero) ..... | 79 05 81     |
| Gasa .....                       | 900 40 05 23 |
|                                  | 79 78 44     |
|                                  | 79 76 78     |

**GARRAIOAK**

|               |          |
|---------------|----------|
| Taxiak .....  | 79 12 22 |
| P.E.S.A. .... | 79 14 19 |

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK**


|                                 |          |
|---------------------------------|----------|
| Iturbide Egoitza .....          | 79 72 11 |
| Abaroa jubilatuen egoitza ..... | 79 81 57 |

**KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA**

|  |          |
|--|----------|
| Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte ..... | 79 87 77 |
| KIUB-OMIC .....  | 79 51 55 |

**MONTEERRONGO LIBURUTEGIA**

|                 |          |
|-----------------|----------|
| Monterron ..... | 77 01 05 |
|-----------------|----------|



13

**OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Salsa rosa" (5-7.30-10).
- Alberto Encinas-i ongietorria, Seberon arratsaldeko 7.30etan.
- Martxoaren 13a arte, haratuzteetako Argazki Rallyaren erakusketa Monterronen.
- AEDren Batzar Orokorra, Monterronen arratsaldeko 7etan eta ondoren afaria Kataiden.
- Bigarren mailako buzeo ikastaroa, 29a arte. Plaza mugatuak.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gauez: Estella, Bergara.

14

**LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "The Fisher King" (5-7.30)
- Umeentzako bideo-emanaldia "Gremlins", Monterronen arratsaldeko 4etan.
- Laud-en kontzertua, parrokian arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gauez: Mozos, Bergara.

15

**IGANDEA**

- Zinea: Alai: "The Fisher King" (5-7-9.30)
- Besaidek antolatuta mendiko eski ibilaldia.

**Kirol Agenda**

**Futbitoia**

- Zaldibarko futbito txapelketaren barruan larunbata eta igandean hamabi partidu.

**Futbola**

- Mondra eta Zallaren arteko partida, igandean Atxabalpen arratsaldeko 4etatik aurrera.

**Saskibaloia**

- Emakumezkoen saskibaloia partidua, larunbatean Musakolako kiroldegian arratsaldeko 6etan: Centraljet - Donosti.

- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gauez: Mozos, Bergara.

16

**ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "The Fisher King" (7-9.30)
- Analisi Bioenerjetiko ikastaro praktikoa, AEDn arratsaldeko 4etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

17

**ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "The Fisher King" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

18

**ASTEAZKENA**

- Hitzaldia: "Bularreko minbizia-ren diagnostiko goiztiarra" arratsaldeko 5etan Monterronen.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

19

**OSTEGUNA**

- Gantxilo ikastaroa, AEDn arratsaldeko 3etan.
- 22a arte, Yoga Elkarteak antolatuta ikastaroa-elkarbizitza Elgoibarreko baserri batean.
- 22ra arte, mendiko ibilbideak "Picos de Europa" mendikatera.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.



## Ikastarora

### • Yoga

Datorren San Jose zubian yoga ikastarora izango da El-goibarko San Pedro auzoko baserri batean, Arrasateko Yoga Elkarteak antolatutik. Informazio gehiagotarako dei egin telefono honetara: 79 35 76.



### • Eskalada

Apirilaren 6tik 11ra Bergarako Kirol Zerbitzuak antolatuta, eskalada ikastarora izango da 14 urtetik gorakoentzat. Bazkideak mila pezetako ordaindu beharko dute eta gainerakoek bi mila. Klaseak polikiroldegian izango dira hiru txandatan.

## Ospakizunak

### • Bazkaria

Datorren 28an 1934. urteko kintolagunen bazkaria ospatuko da. Eguerdiko ordubatean hasiko dira ospakizunak meza batekin eta ordubi t'erdietan bazkaria Udalpe Elkartearen. Izena Bengoa tabernan eta Zangitu paperdendan eman daiteke eta prezioa 2.000 pezetakoa da.

### • Otoitza

Garizumako ostegun gutietan otoitz-bilerak egingo dira pakearen alde eskatzeko. Gaueko 9etatik 10etara izango dira eta antolatzaileek dei bat zabaltzen diote herri osoari.



## Urta-lrazola ETB Kantxan

### Pilotako bigarren mailako txapela jokoan

ETB kantxa programaren barruan, gaur gaueko 10etatik aurrera Urta eta Irazolaren arteko pilota partidua ikusteko aukera izango da, bigarren mailako pilotari profesionalen txapelketako finala hain zuzen ere. Pronostiko gehienek Irazola faboritotzak jotzen badute ere, Arrasaten taxista lan egiten duen atxondotarrak kontuz ibili beharko du Urta arrasatearrarekin, horrek badaki bigarren mailako txapela jaztea zer den eta. Txapelketako final honetan Barandiaran izango da Urraren botileroa eta Irazolarena, berriz, Xipri ospetsua. Lehen esan bezala, Urrak behin irabazi zuen txapelketa hau, baita lehen mailako profesionalen artean denboraldi bikaina burutu ere, baina harrez gero ez du gauza handiegirik egin. Iazko txapelketan ere topo egin zuten eta orduan Irazola izan zen nagusi: 22 eta 3.

Aurten zer gertatuko den? bada, ikusi egin behar, gertatzen dena gertatzen dela, Urta eta Irazolak ez diote utziko lagun izateari, hori seguru.

## Mendia

### • Picos de Europa

Datorren zubirako, hilak 19, 20, 21 eta 22, Besaide Mendizale Elkarteak Picos de Europarako mendi-irteera antolatuko du. Besaide Elkartearekin joan nahi duenak, hilaren 16a aurretik eman beharko du izena elkartean bertan. Bidaia honetarako iragarri diren prezioak honako hauek dira: bazkideek 3500 PTA, ez direnek 4000 PTA eta umeez 3000 PTA. Irteera, martxoaren 19an izango da, goizeko 7etan.

## Hitzaldiak

### • Bularreko osasuna

Datorren asteazkenean, hilak 18, arratsaldeko 5etan, "Bularreko minbiziaren diagnostiko goiztarra"ri buruz hitzaldi bat izango da Monterroneko aretoan.

Hitzaldiaren antolatzailea Emakume Mastektomizatuen Elkarte da. Hitzaldiaren ondoren norberaren bular azterketa egiten erakusten duen bideoa eman da, kasu konkretu bakoitzaren ezaugarriak zehatz-mehatz azalduz.

### • Arnasketa

Datorren 27an, arratsaldeko 6.30etan Monterronean "Arnasketa Konziente"ri buruzko hitzaldia izango da, Arrasateko Yoga Elkarteak antolatu duen ikastarorako sarrera moduan. Ikastaro-tailerra F. Rivera-Rojasek zuzenduko du 28an, eta 10 saioetik 20ra izango dira, pertsonaren arabera.


### • Historia

Pasa den astean hasi eta apirilaren 9arte Bergarako historiari buruzko hitzaldi batzuk izango dira Kultur Etxean. Oinarrian irailean argitaratutako ikerketaren emaitza dugu: Monografiak. Datorren 17an "Artea Bergaran. Ertarora eta Aro moderno" izeneko hitzaldia burutuko da M. Jose Aranbururen eskutik. 24an berriz, "Industrializazioa" aztertuko da Juan Mardariagarekin, 26an "Etxea, familia eta lana" Alberto Santamariakin eta 31an "Bergara hiri erdi aroan" Amaia Basterretxearekin. Apirilean ere beste hiru izango dira ingurune fisikoa, Bergarraren historia eta ilustrazioari buruzkoak.

## Odol emaleak

### • Anbulategian

Datorren 16, 17, 23 eta 24ean Arrasateko anbulatorioan odol-emateak izango dira. Odol emaleak 18 urte baino gehiago eta 65 baino gutxiago izan behar ditu. Kontutan hartu behar den gauza bakarra, azken jatorrutik 2 ordu t'erdigaro aurretik odola ez ematea da.





PSOeren mozio alternatiboa: "1) Edozein pertsonaren oinarrizko eskubideen aurkako eraso basati guztiak salatzen ditugu. 2) ETAren terrorismoaren biktima guztietaz, hildako, mutilatu, estortsionatu eta presoetaz arduratuko den batzorde bat sortzea eskatzen dugu. 3) Erabaki hau Artapalori edo dagokionari bidaltzea, ez badaki, Euskadik pakean bizi nahi duela jakineraziz eta beraz, hiltzeari uztea esigituz".

(Nekane Iglesias zinegotzi sozialistak 92-3-6ko Udal Plenuan Senideak-ek aurkeztutako mozioari buruz)

Sobera aldiz esan dugu zeintzuk diren dauzkagun argumentuak euskal preso politikoekin egiten dituzten astakeria, basatikeria eta ilegalkeria eta inkonstituzionaltasun guztiak ere salatzeko. (...) PSOeren mozioari buruz, iraindu, ahal duenak egiten du eta ez nahi duenak. Egileengatik nahiko esaten du mozioak berak. (...) Estatuak obligazioa du berak ezarritako legea betetzeko eta hori da mozio horren bidez salatu nahi dena, eskubideak defendatzea eskatzen".

(Xabier Zubizarreta alkateak 92-3-6ko Udal Plenuan)

Kartzelatik irtetzeko aukera ez da mozioren bitartez lortuko, ETAk armei utzita baizik, eta horretan presoen badute zeresanik eta euren etorkizunaren alde jokatu behar lukete. ETAk armak uzten dituenean irtengo dira presoak eta ez lehenago, eta hori herri honen gehiengoaren eritzia da, horren lekuko astartetan plazan izaten den jende pila".

(Aitor Orobengoa EuEko zinegotziak 92-3-6ko Udal Plenuan)


**Kontsumitzaileen Nazioarteko Eguna dela eta, kontsumitzaile kontsumentziarik badago dago Arrasaten?**

Arrasateko KIUB, Kontsumitzaileen Informazioarako Udal-bulegoan izaten diren kexa eta kontsultak gero eta ugariagoak dira. Iaz, hilean batez besteko 30 kexa eta kontsulta izan ziren, aurtengo urtarri eta otsailean 50. Argi dago horrek kontsumitzaile kontzientziaren igoera azpimarratzen duela.

Dudarik gabe iragarki eta albisteen eraginez kontsulta eta galderak gehitu egiten dira. Legegintza eta teorien dauden postulatu eta arauak errealitatean ez dira argi ikusten. Arau batek metro karratuko salneurria zehazten badu eta errealitatean muga hori gainditzen bada, normala da keizatea. Hor dago niretzat koxka: teoria eta errealitatea ez datozela bat. Iragakietan esaten diren gauzak, orokorrak dira eta kasu denak ez dira berdinak.

Bulego honetan egiten diren kexakin jarraipen bat egiten da, kasu bakoitza aztertzen da, bertan tramitatuko den edo beste erakundeetara bidaliko den ikusteko. Turismo, Industria edo beste erakundeetako kompetentzia badira, beraiei pasatzen zaie prozesua aurrera atera dezaten. Iaz traspasatu ziren 8 kasuetatik, bat ere ez zen konpondu. Bulegoan tramitatu diren kasuetatik 6 edo 10 ezik, beste denak konpondu dira. Hemen ez bada ezer lortzen, oso zaila da beste erakundeetan lortzea.

Emakumeak dira kontsulta eta keja gehien egiten dituztenak, beharbada kokapenaren eraginez, azokan bertan bait dago.



ANTON FERNANDEZ  
KIUBEKO ZUZENDARIA.

**K**abia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

ARRASATE  
HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M**  
ARENZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

M  
E  
C  
A



R  
A  
P  
I  
D

IKUSENTZUTE BIDEZKO MEKANOGRAFIA

- 28 ordutan, egunean klase bat, 200 pultsazio minutuko
- Hatzamar guztiekin idaztea
- Tekletara begiratu gabe
- Baita abiadura ikastaroak ere, minutuko 350 pultsazio arte.

BAITA MEKANOGRAFIA  
ORDENADORE BIDEZ ERE

TAKIGRAFIA

**meca-rapid**

Otalora, 3-1. C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53



## Aramaio

• Eliz bilerak

Auzo bakoitzeko bi ordezkari aukeratu dira eliz inguruko gai eta arazoak eztabaidatzeko.

Lehen bilera aste honetan bertan izango da garizumari buruz. Ordezkariek auzoetan komentatzen dena azalduko dute, orohar eliz ospakizunei buruzko jendearen eritzia ezagutzeko. Taldea gazte, emakume eta gizonek osatzen dute eta gizarteko sektore denak ordezkatzeko nahi da. Oraindik ez dira hurrengo bilerak zehaztu, eta ez da ziurtatu nolako maiztasuna izango duten, baina ziur aski hiru-lau izango dira urtean zehar. Aurreko apaizak eginiko proiektu baten barruan sartzen dira bilerak.

• Gazte txartela

Eusko Jaurlearitzari egin-dako eskakizun baten bidez, posible izango da hemendik aurrera gazte txartela Aramaion bertan egitea. Liburutegiko arduraduna izango da aurrerantzean txartelen arduraduna izango duena.



## Aretxabaleta

• Aretxagazeta berriz kalean

Formato berriaz eta erabat itxuraldaturik, atzo kalejaratu zen Aretxagazeta aldizkaria berriro ere. Lehengoa baino askoz txikiagoa, eta lehen astean 12 orrialdekoa, hamabostean behin herriko berri ekarriko die atxabaltarrei. Aldizkariaren zuzendaria Jokin Antxia izango da eta langile gisa Agurtzane Elkorok jardungo du. Horrezaz gain, kolaboratzaile sare zabala ere izango da.

Hasiera baten herriko buzoi guztietara banatuko den arren, gerora bazkideen artean bakarrik banatuko da eta gainerakoek herriko zenbait puntutan izango dute eskuratzeko aukera. Horrezaz gain, herriko merkatariek ere espero baino harrera hobea egin diote publikitatea eskatzera joandako garaian.

Aldizkariaren tirada, bestalde, 2.500 aletakoa izango da eta bere orrialdeetan zehar elkarrizketa, erreportaia, albisteak, inkesta, komikia, kirolak, agenda eta lehiaketa izango ditu besteak beste. Aste honetako erreportaia nagusia Everesterako espedizioari buruzkoa izango da.


## Oñati

• Istiluak

Pasa den igande gauetan hordituta zegoen guardia zibil batek istiluak sortarazi zituen Oñatiko taberna batean. Pistola eskuan zuela, Paco tabernan sartu eta bi pertsona mehatxatu zituen. Azkenean beste guardia zibil batzuk jaso behar izan zuten.

• Txapelketa

Datorren astebukaeran, Billarreko Lehen Txapelketa izango da Iturri pubean. Parte hartzeko mila pezeta ordaindu beharko dira. Sariak 15.000 pezetatik 5.000ra.



**LANDALUZE**  
**AHATE-PRODUKTUAK**  
 TERRINE DE FOIE BLOC  
 PARFAIT MACRÉ ET CONFIT  
 ETXEN EGINIBO  
 AHATE-URDUTZPIBOK

Iturriotz, 7 ARRASATE Tfnoa: 79 14 86

**BEVERLY**  
**TABERNA**

Gipuzkoa Etorb., 9 Tfnoa: 79 16 99  
 ARRASATE

**H A U R T X O A**

Arrasate Pasealekua 4,  
 ARRASATE Tfnoa: 79 14 90



□ Zaborbiltzaileen grebarik ez

Deba Garaiko zaborbiltzaileek astelehenean hasteko zuten greba bertan behera utzi dute akordiora heldu ondoren. Soldata aldetik, ehuneko hamarreko igoera eta zortzi ordu baino gehiago lanik ez egitea onartu zuten. Plantila aldetik, ez da langile gehiago sartuko, denbora gutxi barru bilketa lana errazteko zaborrak puntu batzutan kontzentratuko direlako.

□ Arazoak Naturgas-ekin

Arrasateko gas naturalaren erabil-tzaile askok, salaketa ugari aurkeztu ditu Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegoan (KIUB) azken fakturak direla eta. Aipatutako bulegoan esandakoaren arabera, Naturgasek gasaren faktura hileroko aurkezteko obligazioa omen dauka; azkenaldian, kontadoreak begiratu ez dituztenez, faktura horiek estimazio soilen bidez egin izan dira. Ondorioz, fakturak aurten ezarritako BEZaren eta azaroan ezarritako gasaren tarifen igoeraz azaldu dira. Hortik zetozen haserreak.

Naturgasen adierazi digutenez, fakturen estimazioa urtarreleko fakturan egin da bakarrik eta tarifa eta BEZaren igoerak ondo ezarri dira.

Azkenean ordaindu beharra izango bada ere, fakturarekin ados ez daudenak ordain-agiria itzuli eta industrian salaketa jarri beharko lukete KIUBen uestez.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Manuel Ruiz Blazquez & M<sup>a</sup> Rosario Arana Erostarbe. Otsailaren 28an. Zibilez.

Oscar Jimenez Garcia & M<sup>a</sup> Isabel Garrido Ruiz, Martxoaren 7an. Elizaz.

Miguel Angel Atxa Urrutia & Margarita Castello Bayon. 7an. Elizaz.

# Txandaka

## HEZITZEA GAUR EGUN

**P**ertsona osotasunean hartu nahi duen heziketak, pertsona askeak hezitzaera jo behar du. Jakintzak transmititzea da errazena eta hezitzailea benetan inplikatzeko duena, bere lan esperientzia askatzailea izatea lortzea da.

Begiak ireki eta bere ikasleen errealitate konkretua begiratzen duen

hezitzaileak, giza baloreak eta balore kristauak porrotean daudela ikusten du. Ikaslea etorkizunarekiko segurtasunik ezak, langabeziak, solidaritateak ezak, injustiziak, konpetibitateak eta kontsumismoak harrapatu dago eta aldi berean egia, pake, solidaritate, maitasun eta askatasun gogo izugarriak sentitzen ditu.

Guraso eta hezitzaileok komentatuta gaude: **Gaur oso zaila da hezitzea.** Horixe da gaur eskolak duen erronka handia eta umea **askatasuna** eta **zoriona** lortu nahi dituen gizakia dela ohartzeko gai izan garela esan nahi du horri aurre egiteak.

Baloretan hezitzea lan geldo eta neketsua da baina ez erakargarritasunik gabea. Kulturaren transmisioan Gizarteari, Familiari eta Eskolari batera ihardutea eskatzen zaigu, horrek ezjakintasunaren esklabuzatik askatu egiten bait du gizakia eta bizi izandako balore batzuk eskaintzen.

Hezkuntzako egungo Erreformen



Rosario Remón (\*)

badira, gauza negatiboek gain, fededun gisa dugun heziketa-estilora hurbiltzen diren ildo batzuk:

- Eskolaren kontzepzio partizipatiboa.
- Giza harremanen sustapena.
- Heziketa-prozesu guztia era berritu eta hobetuan ulertzea.
- Heziketa-proiektuaren sendotzea, komunitate

hezitzaile guztiaren baterako ekintza jaso eta zentru bakoitzaren ezaugarri den estilo berezia azalduz.

Koiuntura honetan, eskola katolikoak honakoa egin behar du:

- Bere zeregin hezitzailea esperientzia askatzaile bihurtu.
- Etorkizun eta itxaropenezko bideak ireki.
- Komunitate hezitzaile guztia bildu eta familia handi bat sortzea.
- Gaurko umeari pertsona bezala hazten lagundu bere gaitasun guztiak armonikoki eta gradualki garatuz, bihar gizaki kultu, aske, ekimendun solidario, bakezale, bidezko eta zintzoa... , bere garaiko gizartea berritzen konprometua, izan dadin.

Hezitzaileok horizonte zabala eta lan handia ditugu aurrez aurre. Atzoko lan ona eta heziketaren mundutxoan somatzen den mejoarako gogoia dira **hezitzea** deitzen den lan delikatu, eder eta garrantzitsu honetako arrakastaren presagiorik onena.

(\*) LA MERCED-EKO ZUZENDARIA

LURRINDEGIA

# ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias, 28-B ARRASATE Tfnoa: 79 08 70

# ENARA OSAGARRIAK

Maalako Errabala, 21  
Tfnoa: 79 62 32  
20500 Arrasate







Mertzedarien komunitatean gaur egun hogeitamar moja daude

## Mertzedariak 100 urte herrian

*1892ko maiatzaren 11n iritsi ziren Arrasatera*

Mertzedariak Arrasatera etorri zireneko ehungarren urteurrena burutuko da aurten, eta hilaren 30tik apirilaren 5a arte ikastetxean hainbat ospakizun izango dituzte, besteak beste: hitzaldi sorta bat, umeez egin eta ikasleen gurasoei zuzendutako antzerkia, jaialdi eta dantzaldia ikastetxeko guztientzat, meza eta kontzertua.

1892ko maiatzaren 11n iritsi ziren Arrasatera lehen bost mertzedariak, Bergarako Genoveva Unzueta buru; Frantziskotarren komentuko eraikuntzan gorde zieten tokian sartu eta ospitale, eskola eta egoitza bihurtu zuten. Gaur egun ospital zaharra bezala eza gutzen den tokian, garai batean mertzedariak gaixo tuberkulosoak ere zaindu zituzten. 1984. urtean Iturbide Egoitza zabaldu zen eta ospital zaharrean zeuden jubilatua hara eraman zituzten. Han lan egitera, joan ziren mojetatik

bakarra geratzen da gaur egun.

Eskola Profesionalaren inguruan ere, 1980. urtera arte kultura eta laguntza lana egin zuten mertzedariak, 1966. urtetik aurrera Eskualde Ospitalean ari dira lanean eta 1980tik Santa Agedako Ospitale Psikiatrikoan ere bai. Arrasaten, mertzedarien historiaren barruan bada beste data aipagarri bat, 1969. urtea, garai batean Santamainako ermita egon zen toki berean ikastetxe berria inauguratu zeneko urtea hain zuzen ere.

Gaur egun hogeitamar moja mertzedaria daude Arrasateko komunitatean: bederatzi Eskualde Ospitalean, bost Santa Agedako Ospitale Psikiatrikoan, bat Iturbide Egoitzan, eta hamazazpi La Merced Ikastetxean, eskolak ematen dituztenak sei besterik ez badira ere. Sei moja horien eta beste hogeitamar irakasleen artean 531 ikasleri ematen dizkiete eskolak.

## Usteak uste

**A**l *Andalus* eta *Corazón de Encina*, Arrasaten indarra hartuz doazen kultur taldeak. Euren arteko ekintzak eta beste talde batzuen partaidetzadunak, kultura eta sustrai ezberdinen oroitzapena bizirik mantendu nahia. Eta ez da gitxiagotarako, olibaren zein artadien lurreko etorkinak Arrasaten hainbeste direla jakinda. Harritzekoa lehenago ez juntatu izana.

“Ghettoa” ote den, zerk edo nork biltzen ote dituen, denetik entzuten da “euskaldunen” ahotan, eta nire ustez, argi dago. Euskaldunak ere horixe egin du Ameriketara eta iritsitako tokietan: Euskal Etxea sortu. Ez naiz ezberdintasunak ahazten ari.

Integrazioa, horixe da aipatu barik ere gauza guzti hauen azpian dagoen berba. Kolektibo horietan hartzaile direnak — benetan hemendik kanpo jaiotakoak — izango dira seguruen gutxien integratu direnak, eta taldeetan lanean diharduten asko, integratutakoak — umeak, gazteak —. Ikusi bestela nolako irekitasunez jokatzeko duten komunikabide euskaldunen aurrean. Eta polita da soineko luze kolorinetakoa soinean, aurpegian oreina margotuta eta peinetan buruan daraman neskatilari euskaraz entzutea. “Andaluzak” esaten diegu, tonu despektiborik gabe, seguru. Baina ez, arrasatearrak dira; edo hori ere bai. Neuk hala uste.

ARANTZAZU LOIDI

# Berango



## Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE



**Hitzarmenerako teknikari bila**

Euskararen hitzarmeneko dinami-zatzaile lanpostua ez da oraingoz bete-ko eta beste deialdi bat egingo da laster. Jakina denez, frogetara aurkeztu zire-nek ez zuten eskatzen ziren zituzten hizkuntz-eskakizunak betetzen. Hori dela eta, deialdi berrirako hizkuntz per-fila jaitsi egingo da.

**Auto istripua San Prudentzian**

Eduardo G. S. 30 urteko donostiarra hilik gertatu zen asteazken goizean San Prudentzio inguruan izandako auto-istripuan. Hildakoak gidatzen zuen SS-8499-AD matrikuladun autoa erre-pideko kontrako aldera sartu zen eta A. D. P. 42 urteko gasteiztarraren Lancia Dedra autoaren aurka jo zuen. Atzetik zetorren beste auto batek, Bartzelona matrikuladun Alfa Romeo batek ere jo zuen. Eduardo G. S. momentuan bertan hil zen, eta bere gorpua ateratzeko Zu-billagako suhiltzaileen beharra izan zen. Beste bi autoetako gidariek kolpe ba-tzuk besterik ez zituzten jaso.

**Larreako etxebizitzaren planoak**

Atzerapenez bada ere, hilaren 24ean proiektuaren planoak ikusteko aukera izango dute azkenik Larreako Etxebizit-zen kooperatibako partaide direnek. Izan ere, aipatutako egunean, arratsal-deko 7.30etatik aurrera etxebizitzaren proiektua azaldu eta obren egutegiaren berri emateko bilera burutuko da Uda-letxeko Pleno aretoan.



Matrikulen hazkundearekin lokal arazoak izan ditu beti Udal Euskaltegiak

## Udal Euskaltegiaren 10. ikasturtea

2.695 matrikula egin dira hamar urtetan

Lau irakasle eta berrogeitamabost ikaslerekin, 81-82 ikasturtean ireki zen Udal Euskaltegia; beraz, aurtengo ikasturtea amaitzerakoan hamargarrena beteko da. Hazkunde ikaragarria izan du Udal Euskaltegiak sorreratik, lehen ikasturteko datuek gaur egunekoekin zer ikusirik ez izateraino. Iazko datoen arabera, Udal Euskaltegian 550 matrikula egin ziren, 21 irakaslek egin zuten lan eta eguneko 67 eskola ordu eman ziren.

Matrikula edo irakasle kopuruaren

hazkundeaz gain, gorabehera gehiago ere izan dira hamar ikasturteko bizitzan; behar bada, Udal Euskaltegiaren koka-penarena izan daiteke aipagarriena. Arima-Zuri plazako geletatik aparte, Ahizke, Eskola Politeknikoa, Erguin Eskola, EPA, Musakolako eskola, Fer-rixalekua, Aurki, Gelma eta Ikerlanen eman izan dira eskolak.

Hamargarren ikasturtea betetzen dela eta, Udal Euskaltegian, ospakizun ugari egiten ari dira ikasturtean zehar, gehienak barrura begira.

**LANDALUZE**  
AHATE-PRODUKTUAK  
TERRINE DE FOIE BLOC  
PARFAIT MACRET CONFIT  
ETXEAN EGINIBO  
AHATE-URDUAITZPIBOA

Iturriotz, 7 ARRASATE Tfnoa: 79 14 86

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 71 80





Lagun-Aroko asanblada orokorra La Merced ikastetxeko areto nagusian burutu zen

## Lagun-Arok iaz 19.208 bazkide

### Asanblada orokorrean 1991ko memoria aurkeztu zen

Lagun-Aroko ohizko asanblada orokorra burutu zen La Merced Ikastetxean eta beste gai batzuren artean 1991ko memoriaren aurkezpena ere egin zen. Emandako datuen arabera, iaz 19.208 bazkide izan zituen Lagun-Arok eta sendagileen zerbitzuez balia zitezkeen guztiak 46.200 izan ziren. Jende guzti horrek 1.700 sendagile eta 126 ATS eta praktikanteren zerbitzuak erabiltzeko aukera izan zuen, eta baita 42 klinika ere. Urtean zehar Lagun-Aro aseguru erabilia 3.226 pertsonen izan

zuten klinikaren batean sartu beharra, guztira ingesatuta 17.576 egun pasatu zituztela. Klinikak alde batera, urtean zehar Lagun-Arok izan den mugimenduen adierazgarri izan daitezkeen beste datu batzuk ere badira: 200.828 bolante egin dira, 308.035 radiografia eta araketa, 830 scanner eta 106.504 errezeta.

Beste aseguru-motak, pentsioak, ekonomiaren bilakaera, inbertsioen gestioa... eta gai gehiagori buruz ere hitz egin zen Lagun-Aroko asanbladan.

#### Encinas-i ongietorria

Martuteneko gartzelan bost hilabete pasa eta gero Alberto Encinas arrasatearra aske utziko dute gaur. Arratsaldeko 7.30etan Sebero Altube enparantzian ongietorria emango zaio eta ondoren, gaueko hamarretan, afaria egingo da Kataiden.

#### Alkatea Salto del Negro-ra

Joan den ostiralean Udal Plenoak horrela erabaki eta gero, Xabier Zubizarreta Alkatea eta bi zinegotzi, seguruen Pedro Mari Ruiz de Azua eta Agustin Ibarluzea "Txispas", gaur Kanariar Irletako Salto del Negro espexera joango dira. Bidaia horren helburua, gose greban dauden euskal presoen egoeraz galdetzea da, Jose Mari Zabarte eta Pedro Guridi arrasatearrena bereziki. Gogora daitekeenez gaurkoan gose-greban 39. eguna beteko da.

#### Igeritokian froga batzuk

Datorren larunbat arratsaldean, hilak 14, igeriketa saio batzuk ospatzen direla eta, 5etatik 7etara, itxita egongo da igeritokia. Bestalde datorren igande eta ostegunean, 15 eta 19an, igeritokia 10.30etan zabalduko da.

#### Aurrekontuen plenoa atzeratu

Hasieran 92rako aurrekontuak onartzeko egin behar zen Udal Plenoa hilaren 24erako iragarri bazen ere, azkenean hilaren 27ra arte atzeratzea erabaki da.

**IRAGARKI HAU 5.800 ETXETAN SARTU DA.**

**ZUREA ERE SARTUKO DA**

**PUBLIZITATERAKO**

**ARRASATE PRESS AUKERATUZ GERO.**





**Kili kili aldizkariak** iaz "Ezetz

igarri" lehiaketa antolatu zuen. 2000 partehartzaile izan ziren eta 600 ume eta gaztetxoek sari bat jaso zuten, 19k sari onenak irabaziz. Argazkian Idoia Aranburuzabala bizikleta zoragarria jasotzen. Partehartzaileak Arrasateko OHoko ikastetxeakoak izan zirela ere aipatu behar da.



Asteburuetak arratsalde eta gauetan ezezik, goizetan ere Alai **zinemara joateko aukera** izaten da. Larunbat eta igandetan, eguerdiko 12etatik aurrera haurrak, aspertuta egonez gero, izaten dute nora joana.

Aramaio eta Erguneko ikastetxeetatik **umeen bisitak** izan ditugu. Komunikabideen ikasgaia ikasten ari zirela eta, Arrasate Press eta ATBko funtzionamendua ikustera etorri ziren. Gaia ondo ulertzeko galdera batzuk ekarri zituzten prestatuta. Bestalde Erguingo eskolakoak eurak asmatutako aldizkari bat ekarri zuten ikusgai.

**Lore** *lurrindegia*

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

**VE ECUADOR**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

**BAZAR**  
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Urriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39





Famili eta Gizarte Heziketa Zentruan egunero daude ekintzak, baina aste asteazken honetan **tar-tagintzako ikastaro berezia** izan du emakume talde batek. Hiru pastel mota egin zituzten. Lastimaz labetik atera aurretik iritsi ginen, mokadu ederra bestela!


*Izen*  
**PROPIOAK**

● **Joseba, Mikel** eta **Eneko** pasa den larunbatean jaio ziren Arrasateko ospitalean. 2.950, 2.600 eta 2.050 izan zen bakoitzaren pisua eta Eneko oraindik inkubadoran dago. Gurasoek, **Maribel Bengoetxea** eta **Jesus Zubizarretak**, badituzte bai pozik egoteko arrazoiak eta, seme bat izatetik lau izatera pasa dira kolpean.


● Andaluzia egunean izandako Sebillana lehiaketako irabazle gazteenak **Aitor Garcia** eta **Lorena Perez** izan ziren. Bigarren saria **Antzoka Raya** eta **Saioa Gomezek** eskuratu zuten. Arratsaldean berriz nagusien lehiaketa izan zen **Susana Gomez** eta **Salvador Delgado** izanik irabazle, eta bigarrenak **Leire Orellana** eta **Joana Viamonte**. Bestalde poesia lehiaketa ere izan zen. Gazteen mailan **Susana Orellanak** irabazi zuen eta helduenetan **Rafael Rome-rok**.

Loiolako Herri Irratiak 92ko **ezkongaiantzat lehiaketa** antolatu zuen otsailean.

Guztira 710 bikotek hartu zuten parte eta Arrasateetik 40k, hauetatik batzuk arrasatearrak biak, beste batzutan bata arrasatekoa eta beste kanpokoak. Bidalitako kasuen artean, kuriosoena Zumarragako mutil bat eta Errusiako neska baten arteko bikotea izan zen. Irabazle, Azpeitia eta Azkoitiako neska mutilak.



**SEGURTASUN-INJINERUTZA**



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko alea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

**ZENBAKI**

Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99





Joan zen igandean ospatu zen **Emakumearen Eguna**. Arrasaten manifestaldi batekin gogoratu zen, arratsaldeko 7.30etan Seber Altubetik irten eta erdiko kalea zeharkatuz. Larunbatean ere izan ziren beste ekintza batzuk, aipagarrienak Kataide jatetxean izandako afari-festa (argazkian) eta Iratiko bazkaria.




Joan zen larunbatean **Andaluzia eguna** ospatu zen Musikolako polikiroldegian. Jende asko eta giro ezin hobean goizetik umeen Sevillana lehiaketa ospatu zen. Jarraian dantza saio ugari izan ziren ikusgai. Eta arratsaldez umeen jolasak izan ziren. Bertara hurbildu ziren guztiak, bai andaluzek eta baita ez zirenek ere, egun zoragarri bat pasatzeko aukera izan zuten.



Txomin Iturbe hil zela bost urte pasatu direla eta, joan den larunbatean **omenaldia** burutu zen. Arratsaldean herriko plazan kontzentrazioa eta ondoren manifestazioa egin ziren; gauean, berriz, Iturripeko kirolddegian Kaxiano, Amuriza eta Lazkano bertso-lariak eta Tapia eta Leturia trikitilariak jai-giroa jarri zuten. Karmelo Landa eurodiputatuak eta Xabier Zubizarreta alkateak egin zuten ekitaldi politikoa.



Pasa den asteazkenean hainbat **ikastetxek greba egin zuten** Salto del Negro, Kanariasko espetxean, 16 euskaldunek egiten duten gose greba dela eta. Egurdiko 12.30tan manifestaldia burutu zuten Seber Altubean; bertan komunikatu bat irakurri zuten kalera irtetzeko arrazoiak azalduz.



# JOMA

## DIRU-KUTXAK

JOSE MARI GALLASTEGI y CIA S. A.  
Gipuzkoa Etorbidea, 32  
Tfnoa: 79 16 55  
ARRASATE






# Hau da minaa!

Ez da normalena izaten, baina noizbehinka min hartzen duenik ere izaten da Zaldibarko Txapelketan.

Zaintiratuak, beltzunak sortzen dituzten kolpe txikiak eta bihurrituak izaten dira gehienetan.

Horrelakoetan, madarikazio bat bota eta hartutakoa onartu, beste erremediorik ez da izaten.



DEBA  
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxe: 77 14 27

## IOSEBA KONTENEDOREAK



Uriburu, 23. 4.a eskuma.  
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE

AGUSTIN

Auto-soinua  
Karburaioa  
Autoarentzako  
osagarriak

Uribarri Etorbidea, 16  
ARRASATE 79 73 58





## A taldea

|                | Partiduak |       |       |       | Golak |       | Punt. |
|----------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
|                | Jokat.    | Irab. | Berd. | Gald. | Alde  | Aurk. | guzt. |
| Fosforos       | 3         | 3     | 0     | 0     | 18    | 5     | 6     |
| Los Heredia    | 3         | 2     | 1     | 0     | 13    | 5     | 5     |
| Argi Ibili     | 3         | 2     | 1     | 0     | 16    | 6     | 5     |
| Kajoi          | 3         | 1     | 1     | 1     | 7     | 9     | 3     |
| Fasprint       | 3         | 1     | 1     | 1     | 10    | 12    | 3     |
| Hirei          | 3         | 1     | 0     | 2     | 9     | 17    | 2     |
| Notxingan Flo. | 3         | 0     | 0     | 3     | 5     | 14    | 0     |
| La Banda       | 3         | 0     | 0     | 3     | 5     | 15    | 0     |
|                | 24        | 10    | 4     | 10    | 83    | 83    | 24    |

## B taldea

|                  | Partiduak |       |       |       | Golak |       | Punt. |
|------------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
|                  | Jokat.    | Irab. | Berd. | Gald. | Alde  | Aurk. | guzt. |
| Adelaida         | 3         | 3     | 0     | 0     | 20    | 5     | 6     |
| Akaitegi Express | 3         | 2     | 1     | 0     | 16    | 6     | 5     |
| Danok Lagun      | 3         | 2     | 0     | 1     | 8     | 8     | 4     |
| Arrasate Kirolak | 3         | 2     | 0     | 1     | 10    | 10    | 4     |
| Gnu Seg. Bilbao  | 3         | 1     | 1     | 1     | 6     | 6     | 3     |
| Adobe            | 3         | 1     | 0     | 2     | 10    | 19    | 2     |
| AEK              | 3         | 0     | 0     | 3     | 5     | 15    | 0     |
| Los Motz         | 3         | 0     | 0     | 3     | 9     | 15    | 0     |
|                  | 24        | 11    | 2     | 11    | 84    | 84    | 24    |

## C taldea

|                  | Partiduak |       |       |       | Golak |       | Punt. |
|------------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
|                  | Jokat.    | Irab. | Berd. | Gald. | Alde  | Aurk. | guzt. |
| G. P. Noski      | 3         | 3     | 0     | 0     | 12    | 7     | 6     |
| Lorategi Potroak | 3         | 2     | 0     | 1     | 13    | 6     | 4     |
| V. C. Daglas     | 3         | 1     | 2     | 0     | 10    | 7     | 4     |
| Pepelus          | 3         | 1     | 1     | 1     | 9     | 8     | 3     |
| Artzankos Udal.  | 3         | 1     | 1     | 1     | 14    | 9     | 3     |
| Jota Akabau      | 3         | 1     | 0     | 2     | 8     | 11    | 2     |
| Diego Antonio    | 3         | 0     | 1     | 2     | 5     | 20    | 1     |
| Zulu's           | 3         | 0     | 1     | 2     | 8     | 11    | 1     |
|                  | 24        | 9     | 6     | 9     | 79    | 79    | 24    |

Joan den asteburuko emaitzek ez dute aldaketa handirik eragin sailkapenetan, baina gauza batzuk argitu dituzte. A taldean, esaterako, Fosforos, Argi Ibili eta Los Heredia indartsuenak direla argi gelditu da, Fosforosok erraz irabazi eta beste biak beraien artean berdindu egin zuten eta. B taldean, beste horrenbeste, Adelaida da gogorrena eta Akaitegi Express aurre egin diezaiokeen bakarra. C taldean, G.P. Noskk lidergoari eutsi dio eta emaitzek erakutsi dute Lorategi Potroak ez dela suposa zitekeen bezain gogorra. Gai-nontzean, Notxingan Flores, La Banda, AEK eta Los Motz-ek ora-indik ez dutela puntu bakar bat eskuratu aipatu behar.



**Fasprint:** Rafa, Zigor, Joakin, Roberto, Armando, Josu, Jon, Iñaki, Jose A.




**Fosforos:** Gaizka, Igor, Patxi, Toni, Edu S., Edu V., Edu B., Candi, Loiti, Hari, Juanito, Aitziber, Ima eta Margusino.

# JMA





Gola sartu ondorengo amorrazioa, huts egin eta errua ateko sareak ordaindu behar. Gaizki egindakoa gogoratzeko une laburrak, "hau egin banu" edo "besteari eman banio" esaldiak burutik pasatzen diren uneak. Total, alperrik, baloia sareetatik bueltan dator eta horrek ez du erremediorik.



## LASO ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 12 75

## EMAITZAK

### A taldea

La Banda 2 ..... Hirei 5  
Los Heredia 2 ..... Argi Ibili 2  
Bar Kajoi 2 ..... Fosforos 5  
Fasprint 7 ..... Notxingan Flores 1

### B taldea


Akaitegi Express 4 ..... AEK 2  
Danok Lagun 3 ..... Gnu Seg Bilbao 1  
Los Motz 3 ..... Adelaida 4  
Adobe 3 ..... Arrasate Kirolak 4

### C taldea

Artzankos 10 ..... Diego Antonio 1  
V. C. Daglas 4 ..... Lorategi Potroak 1  
G P Noski 4 ..... Jo ta akabau 3  
Pepelu's 3 ..... Zulu's 3



## Gure-Leku taberna



Zarugalde  
Arrasate  
79 20 29

# Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea. Arrasate

## STIHL

# Leniz Motor

- Nekazal makinaria
- Basogintzarako tresnak
- Lorazaintza
- Motozikleten salmenta eta konponketa

Gipuzkoa Etorb., 9 ARRASATE Tfnoa: 79 11 78





## Txutak

Bi martxa

Bi partiduetan alde handia izan bazen ere, gainontzean berdintasuna izan zen nagusi joan den asteko ihardunaldian. A multzoan, *Fasprint*-ek 7 gol sartu zituen eta *Fosforos*-ek bost, baina aurreneko taldeen arteko neurketan *Argi Ibili* eta *Los Herediak* bina berdindu zuten.

B multzoan, beharbada, A multzoan baino parekotasuna handiagoa izan zen, partidu bat izan ezik beste hirurak gol bateko abantailaz erabaki bait ziren.

Azkenik, C multzoan, *Artzankosek* sartutako 10 golak aipagarri eta gainontzean *Lorategi Potroak*-ek galtzea. Emaidza horiei esker, multzo

honetan *G. P. Noski* lider bakarra da.

Asteburu honetako ihardunaldiari begiratzuz gero, printzipioez ez litzateke sorpresa handirik gertatu behar. Hau da: orain lehen postuetan daudenak euren konpromezuak aurrera aterako dituzte eta sailkapenetan ez da aldaketa handirik izango. Partidu borrokatuak izango dira, hori seguru, baina aurrez begiratuta sailkapenetan eragin handirik izango ez dutenak, esaterako *Gnu. Seg. Bilbao* eta *Arrasate Kirolak* taldeek jokatu dutena, *Diego Antoniok Jo ta akabau* taldearen aurka jokatu duena edo *V. C. Daglasek Pepelus*-ekin jokatu duena.

Dena dela, faboritoek ezin izango dioten tokirik utzi konfidantzari, lagun txarra izateaz gain, txapelketan dagoen berdintasuna ikusita sorpresak ez lirateke harriztekoak izango eta.

BEÑARDO KORTABARRIA

## DATORREN ASTEAN

### A taldea


La Banda ..... Kajoi (Lar. 8.45etan)  
Argi Ibili ..... Notxingan (Lar. 13etan)  
Hirei ..... Fosforos (Lar. 15etan)  
Los Heredia ..... Fasprint (Lar. 16etan)

### B taldea

AEK ..... Adelaida (Lar. 11etan)  
Danok Lagun ..... Adobe (lg. 8.45etan)  
Gnu. Seg. Bilbao ..... A. Kirolak (lg. 11etan)  
Akaitegi Expres ..... Los Motz (lg. 12etan)

### C taldea

Diego Antonio ..... Jo ta akabau (Lar. 10etan)  
Artzankos ..... G. P. Noski (Lar. 12etan)  
V. C. Daglas ..... Pepelus (Lar. 17etan)  
Lorategi Potroak ..... Zulus (lg. 10etan)



## EGIDO

Automobilarentzako  
ordezko piezak

Legarre Pabilioia.  
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11




## Foruen

Gure berezitasuna: rabak

Foruen Plaza, 2 Tfnoa: 79 06 16  
ARRASATE

GOZOKIAK • KAFEA




## AKELARRE

### ESKUZ EGINDAKO GOZOKIAK

Tartak, pastel txikiak, pastel bereziak,  
gurinezko pastak, opiltxoak, ezkontza-tartak.

ENKARGUAK: 77 00 71 tfnoan.

Zarugalde, 54 ARRASATE



Elektroinjekzio  
Zerbitzua

## ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5  
Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE



**K**ooperatiba munduan aski ezaguna eta baita herri mailako beste

hainbat ekimenetan ere. Aretxabaletan, orain, Hirugarren Munduaren garapenaren alde lanean diharduen taldeko partaide dugu Sarasua. Alboko herriko dinamika ikusita, Arrasaten ere hasi da mugimendu txiki bat kezka berberarekin.

— Zein da Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldearen helburua?


— Proiektu konkretuak apoiatzea. Herriaren aurrean filosofi eta gauza orokorrak esaten ibili gabe, ikuspegi oinarritzkoa eman eta pertsonen interesa proiektu konkretuetan jartzea izan da gure lana. Horretarako Iñaxio Galdosen proiektua hartu genuen. Jendeari informazioa ematea da helburua, eman duen dirua zertarako erabiliko den beti jakinean izango da.

— Nolakoa da proiektua?

— Oso ederra. Indiako Unai eskualdea, hamazazpi mila pertsona inguruko lurraldea da, eta Adivasi izeneko etniaren gosetea ikusita, han zerbait egitea pentsatu genuen, Galdosen proposamenari erantzunez. Lur onak eta ura egon arren, ez daukate errekurtsorik. Falta den lehen gauza eskolak dira: Txikitatik lanean jartzen dituzte eta gero ez dira eskolara joaten. Eskolaurreko hamasei zentru egitea da asmoa, gerora ere eskolan jarrai dezaten. Lau urtetarako hamasei irakasleren soldata eta materiala sartzen da proiektuan. Bigarren zatia, 323 hektarea lur berdintzea da, monzoietan euriak ihesik ez egitea lortuz, askoz arroz-

Jose Mari Sarasua

## “Hirugarren Munduari lapurretan ari gara”



uzta hobeak jasoko dira, lau edo bost aldiz hobeak. Hirugarrenenik, ura ateratzeko 11 putzu egingo dira. Guztia 16 milioi kostatzen zaizkigu bakarrik. Hemengo numerotan berrogei aldiz gehiago kostako litzateke hori. Katastrofe handiren bat ez bada behintzat, betirako gosea kenduko diegu Adivasiei. Gauza hauek duten beste efektu bat imitatzea da. Inguruko herrietan ere atoniatik irten eta lanean hasten dira.

— Zer gogoeta egiten duzu egoeraren aurrean?

— Orokorrean haiei lapurretan ari garela. Hainbeste aldiz aipatzen da kanpoko zorra eta egizko zordunak Iparrekook gara, hango lurrrak eta pertsonak esplotatzen ari gara eta. Ez diegu lagundu behar gosez hiltzen daudelako bakarrik, zordun garelako bazik.

Gainera, guk asko lagundu dezakegu. Nahiz eta guk geure burua txiki ikusi, gure diruak asko balio du. Mila

pezeta ematen dugun bakoitzean berrogei milaren ona egiten dugula izan behar dugu buruan. Edozein ideologia-tako pertsonak ezin du beste inor gosez ikusi, eta pentsa zenbat guraso dagoen bazterretan euren seme-alabak gosez hiltzen ikusten. Izugarria da. Gu bitartean geure ziklo huts horretan bizi gara. Guzti honek beste batzuei laguntzeko balio arren, gure bizitza betetzeko ere balio du, gure bizitzari zentzu bat emateko.

— Eta horren kontzientziarik badu gizarte honek?

— Ez, eta gezurra dirudi, telebistak inoiz baino gehiago agertzen da. Askotan entzuten da “zer pena, negar eta dena egin nuen” eta horrelakoak. Baina jendeak ez dauka kontzientziarik guk daukagula horren giltza eta obligazio morala, lapurretan ari garelako. Jende gehienak uste du mila pezetarekin laguntza handia egin duela eta benetako kontzientzia gauzak destinatzen hastea da, gure ingresoetako %1, adibidez. Ez dago justifikatzen ibiltzerik. Gure lanik beharrezkoena kontzientzia hori sortzea da.

— Udalaren papera zein da guzti honetan?

— Lehengo proiektua eta ikuspegia herrian zabaltzen hasi ginen eta gero Udalarekin harremanetan. Horretarako ONUk gomendatzen duenean oinarritu gara, hau da, erakunde guztiek euren aurrekontuen %0,7 hirugarren mundurako ematea. Dagoeneko badaude Udal batzuk eta horretan nagusi Gasteizkoak dira. Aretxabaletakoari ere eskatu diogu eta alderdi guztiek oso ondo hartu dute gure eskabidea. Hurrengo aurrekontuetan laguntza egoki bat emango duela espero dugu.

“  
Hemengo diruak berrogei aldiz gehiago balio du Indian



# Iñurrategitarrak aurten munduko gailurrera

**Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikasketak bertako mendietan eta gurasoek lagunduta egin zituzten; Pirineo eta Alpeetan, berriz, UBI mailakoak egin eta 89an Estatu Batuetako Yosemite gaitu zuten selektibitate. Urte bat beranduago, Himalayan diplomatura lortu zuten, Pumorin hain zuzen ere, eta iaz lizentziatura Makalu igotzea lortu eta gero. Aurten, doktoratzea nahi dute, horretarako gailurrik gailurrena helburu: Everest-a. Zeintzuk? bada, Iñurrategitarrak eta eurekin batera Jose Ramon Zubizarreta eskoriatzarrak.**

## Himalayak badu zerbait

**M**alenkoniari monoa deitzen zaio gaur egun, beste modu batera esanda Alberto eta Felix Iñurrategitarrak Himalayarekiko daukatenari. Imajina iazko estampa, Makalutik jaitsi berriak, biak hanka eta eskutetan izozketekin eta aurten Everest-a igotzeko baimena lortu nahiean. Ez dago dudarik, atxabaltar bi hautzat Himalayako mendiek badute beste ezerk ez duen zerbait, bereziki Everest-aren 8.848 metroek. Egia esan, iaz itzuli zirenean, "eta hurrengoan, zer?" galdetzerakoan, zerbait berezia somatzen zitzaie, nahiz eta beraiek "ez dakigu, ikusi egin behar izozketen ondorioz mendian ibiltzea komeni zaigun" eta antzerakoak erantzun.

Behar bada, inork pentsa zezakeen baino lehenago etorri zaie atxabaltarrei Hi-

malayako aukera, baina iritsiko zitzaie argi zegoen. Esandakoaz ohartzeko, Albertok eta Felixek orain arte egin dutenari begiratzea besterik ez dago, aurrez pentsatutako guztia burutzeko gai izan dira eta.

## Everest-a, mendien mendia

**I**ñurrategitarrak oztopo ugari gaitu dituzte mendian eta Everest-ak ez dizkie txikiak jarriko. John Hunt, 1953ko ingeles espedizioaren buruak zera zioen:

"... ez beza inork pentsa Everest-a, beste edozein bidetatik ere, 1953ko gurea barne, mendi erraza denik, ez da ez (...) Haizeak indarrez jotzen duenean ezinezkoa da ertz zorrotzetan gora egitea, eta urteak apenas du hori gertatzen ez den egunik.

Eta hala behar du izan, izadiaren aurrean gizasemeak apaltasuna erakutsi behar du eta".

Aipatutako John Hunt espedizioa bi partaide izan ziren Everest-a, Chomolungma "izadiaren ama jainkosa" tibetarrez, eta Sargarmatha "ortzia ukitzen duen burua" nepalieraz, igo zuten lehen bi gizakiak: Edmond P. Hillary eta Tensing Norkey sherpa. Bi haiek, 1953ko maiatzaren 29an iritsi ziren munduko gailurrera. Saiakera alper eta istripu ugari ordura arte. Izan ere, Everest-eko gailurraren konkista luze joan zen: 1920a arte Tibeteko erlijiosoek mendia igotzeko debekuari eustea lortu zuten; Txinako erregimen komunistak ere, denbora luzez Everest-erako bideak itxita izan zituen.



Everest-a, bere 8.848 metroen handitasunaz






Alberto Iñurrategi, atxabaltarra



Felix Iñurrategi, atxabaltarra



Jose Ramon Zubizarreta, eskoriatzarra

Hillary eta Tensing Norkey gailurrera iritsi zirenetik ia 40 urte pasatu dira. Denbora horretan, bide desberdin guztietatik eta era askotan igo izan da Everest-a, baina horrek ez dio garrantzirik kentzen Felix eta Alberto Iñurrategi eta Jose Ramon Zubizarretak aurrera eramango duten abenturari.

### Urrian gailurrean?

**A**txabaltarren eta eskoriatzarren asmoa udazkenerako mendi-gailurra harrapatzea da. Abuztuaren hasieran aterako lirateke Kathmandurantz eta bukarrerako hurbilketa eginda izatea nahi lukete; iraila aklimatazioa eginez pasatu eta urriko lehen hamabostaldian tontorrerako saioak egin, monzoiaren ondoren izan daitezkeen eguraldi onaren tarreak aprobetxatuz.

Everest-erako biderik

ohizkoenetik igotzekotan dira Aretxabaleta eta Eskoriatzako espedizionariak, 1953an Hillary eta Tensing

Norkey edota Martin Zabaleta hernaniarrak eta Pasang Tembak 1980ko maiatzaren 14ean egin zuten bide bere-

tik. Beraz, alde horretatik Deba Garaiko mendizale hauen espedizioak ez dakar berrikuntzarik; bai, ordea, Euskal Herritik Everest-erantz abiatu diren espedizioen izaerari begiraten bazaio. Izan ere, orain arteko euskal espedizioak jende eta material ugari erabili dute; Iñurrategitarrena, berriz, espedizio arina da. Gauzak horrela, aurrekontua ez da beste mundukoa, 6 milioi PTA pasatxo.

Diru kopuru hori lortzeko dagoeneko lanean hasita badaude ere, beharrezkoa izango dute kaleko jendearen laguntza, mutil hauekin batera, guztiok nolabait han izan gaitezten ikurriña tontorrean jartzeko orduan.

Everest-a igotzeko gauza izango diren edo ez? ikusteko dago eta urrira arte ez da jakiterik izango. Lehen pausoak, behintzat, eman dituzte.

## Oxigeno barik

Alberto eta Felix-ek egingo dituzte, gailurrerako saiakerak; eta ez nolanhikoak gainera! oxigeno barik doaz eta. *"Oxigenoa erabiliz gailurra lortu dutenei -zioen Albertok- ez diegu ezer kentzen. Dena dela, beste batzuk oxigeno barik ere igo daitekeela erakutsi dute eta guretzat inportanteena horixe da: geure ahalmenez igotzea. Teknikoki, bideak ez du aparteko zailtasunik, baina zortzi mila metroetatik gora edozer gauza izaten da zaila".*

*"Zentzu horretan, -aipatzen zuen Felixek- gure helburua igoera arina egitea da; hau da, oxigenoa eramatearen duen karga kenduko dugu batetik, eta gainerakoan ere, azpiegitura "senzillue" izan nahi dugu. Eta guzti honetan hutsik izan ez dezagun, ezinbestekoa dugu Joxe Ramonen lana".*



# GRETEL

## Zatoz gure gazte moda ezagutzera

Italora Lizentziatua, 5  
Tfnoa: 77 00 81  
ARRASATE

## Begoña lurrindegia

Drogeria / Jostailuak  
Opariak  
Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73





Urra eta Irazolaren arteko norgehiagoka ETBtik zuzenean ikusteko aukera izango da

# Urra-Irazola aurrez aurre

*Gaur II. Mailako finala jokatuko dute*


|                                | IRAZOLA                  | URRA                    |
|--------------------------------|--------------------------|-------------------------|
| • Edari bat?                   | Garagardoa               | Coca-Cola               |
| • Ezkerra ala eskuma?          | Eskuma                   | Eskuma                  |
| • Kantari bat?                 | Pampi Laduche            | Elvis Presley           |
| • Gerrickoa gorria ala urdina? | Gorria                   | Urdina                  |
| • Herri polit bat?             | Atxondo                  | Arrasate                |
| • Pilota biziak ala motelak?   | Biziak nahiago           | Motelak                 |
| • Liburu bat?                  | Beldurrezkoak            | Ez dut irakurtzen       |
| • Bötillerorik?                | Bai, Xipri               | Bai, Barandiaran        |
| • Amets bat?                   | Bidaia luze bat          | Aberatsa izatea         |
| • Apustulariak?                | Beharrezkoak dira        | Ondo daude              |
| • Hobbie-a?                    | Neskatan egitea          | Mendia                  |
| • Pilotari onena?              | Retegi II                | Jülian Retegi           |
| • Nerbioak?                    | Finalean betik           | Traidoreak askotan      |
| • Akats nabarmenena?           | Enpresarekiko harremanak | Prezipitatu egiten naiz |
| • Eta bestearena?              | Fisikoki ez dago ondo    | Ez du gerri onik        |
| • Umeak?                       | Ez daukat                | Gustatzen zaizkit       |
| • Dohairik onena?              | Bolea                    | Konpletoa naiz          |
| • Eta bestearena?              | Sufritzen daki           | Nire antzerakoa da      |
| • Txikiteoa?                   | Ez                       | Ez zait gustatzen       |
| • Atxikea?                     | Bolea garbia daukat      | Ondo dago debekatzea    |
| • Baserria ala kalea?          | Baserria                 | Baserria                |
| • Galdu ezkerro?               | Entzun egin behar        | Ez da ezer gertatzen    |
| • Irabazi ezkerro?             | Denak lagun              | Ez da ezer gertatzen    |
| • Pronostikoa?                 | 22 eta 14 irabazi        | Ikusiko dugu            |

## Hurrengo partidua

Gaizki jokatu ez arren, Mondrak ezin izan zuen ezerpositiborik lortu Tolosan. Arrasatearrentzat garrantzitsua zen zerbait lortzea, tolosarrak sailkapenean aurreratzeko aukera zegoen eta; jakina, tolosarrentzat garrantzi bera zuen. Gauzak horrela, partidua gogorra izan zen eta arrasatearren defentsa huts batek erabaki zuen azkenean. Izagirrearen mutilek partidua berdintzeko aukeraren bat izan zuten, baina ez ziren gauzatzeko gai izan.

Datorren astean Zalla taldea etorriko da Atxabalpera, arrasatearren parean dagoen taldea. Bizkaitarrak hasiera txarra eman zioten denboraldiari, baina poli-ki-poliki neurria hartu diote eta orain lasaitasunez jokatzen ari dira. Txapelketako lehen itzulian, bizkaitarrek 3 eta 2 irabazi zuten.

Iganderako partiduari begira, berriro ere derrigorrez irabazi beharra dute mondragoetarrek, nahiz eta aurrean arerio gogorra eta indar handia duena izan. Izagirrek ezin izango du berak jokoan jarri nahiko lukeen taldea zelairatu, lesioak eta zigorrak medio, oso aukera urriak gelditzen zaizkio eta. Dena dela, Zallari irabazteko ahaleginean ahalik eta talderik onena zelairatuko du, duda barik.



**ITSASKI**  
arrandegia

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa  
Arrasate 79 98 94

**MUXIBAR TABERNA**

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE



## JON ANDONI AXPE

### Hegaz gero eta gustorago

**J**on Andoni Axpek hiru urte daramatza hegan egiten, Delta Hegoak agertu zirenean sartu zitzaion hegarako grina, baina Parapentea asmatu arte ez zuen lortu. Gehien moduan, Parapente ikastaroa egin zuen udara baten. *"Berez, hegan egiten aste betean ikas daiteke, baina kontuan hartu behar da hegan egiteko bezala ikasteko ere, baldintza egokiak behar direla. Gaur egun parapente eskola asko daude eta hegan egin nahi duenak horra jo dezake"*.

Altsasun ikasi zuen Jon Andonik eta oraindik ondo gogoratzen ditu lehen urratsak. *"Parapentea jasotzen ikasi, ondoren arinetan joan eta salto egin. Hasieran zelaietako maldetan behera joaten ginen eta beranduago 400-500 metrotako jauzian. Jauzi hori egin orduko, aidean ibiltzeko sentsazioa menderatuta genuen. Beldurra? orain ere bai, lurrera jeisterakoan beti izerditan izaten naiz"*.

Axpek arriskuaz ere hitz egiten du, normalean salto egin behar duenaren esku dagoenaz. Izan ere, salto egin aurretik hegalariak baldintza batzuk hartu behar ditu kontuan: haizearen abiadura, dabilen haize-mota, lurra hartzeko toki bat edo bi aukeratu...

# PODIUMA



azkenean arrisku potentzial handiena norbera izaten da, salto egiteko gogoia eta baldintza eskasen neurketatik ateratu daitekeen ondorio okerra.

Azken urteetan, materialetan asko aurreratu omen da eta alde hortatik ere seguruagoa da. *"Hasierako parapenteak jauzgailuak besterik ez ziren, oraingoak, berriz, hegan egiteko tresnak. Batz bestea, parapente on bat 250.000 PTA ordainduta eskura daiteke, baina bigarren eskuko merkatuan 60.000 PTA gatik lor daitezke"*.

Mendia eta hegan egitean nahasten ditu parapenteak, mendi-gailurretara oinez joan beharra dagoelako kasu askotan; horregatik bizkarrean erositasunez eraman daitekeen motxila bat besterik ez da, 8-9 kilokoa gutxi gorabehera. *"Aidean zer egiten den? orografiaren berrikuntzak aztertu, aide korronteak zaindu, paisaia ikusi eta ahalik eta denbora gehien bertan pasatu"*.

#### ◆ Txirrindulari denboraldiaren hasiera

Dorletako txirrindulari eskolako lehen urteko jubenilak aurtengo denboraldiari hasiera eman zioten joan den asteburuan. Lasterketa Beasainen, 50 kilometro eta irteeran 136 txirrindulari; helmugan, berriz, 90. Dorletako txirrindulariek ezin izan zuten aurreneko postuetan sartu; onenak: Jose Miguel Elizburu 20garren, Haritz Altube 22garren, Zigor Urain 24garren eta Iker Zugasti 24garren.

#### ◆ Rugbykoek kategoriari eutsi

Getxoren aurka jokoan jarri ziren bi puntuen beharra zuten arrasatearrek eta ez zuten aukera galdu, 17 eta 14 irabaziz. Partidoa oso gogorra izan zen eta arrasatearrek, hain arerio serioa menderatzeko, joku bikaina erakutsi zuten. Arrasate Rugby taldeak kategoriari eutsiko dio beste urte betez. Denboraldiak gorabehera handi bat izan du: Garagartzako zelaia.

#### ◆ Emakume futbolariak gogor

Mondrako emakumezkoen taldeak ez zuen eragozpenik izan ligari amaiera ematen zion partiduan garaipena lortzeko, 9 eta 0 irabazi bait zion Ostadar taldeari. Arrasatearrek liga sei lehengoan artean bukatu dute eta ondorioz kopa jokatzeko aukera izango dute, Bizkaia eta Gipuzkoako hamabi talderen artean erabakiko den trofeoa.

#### ◆ Saskibaloian porrotak

Gizonezko zein emakumezkoen saskibaloia taldeek galdu egin zuten joan den asteko partiduetan, emakumezkoak gauza gehiegi egin barik eta Talde Berriren aurka; gizonezkoak, berriz, partidu ona egin eta gero eta liderra aurrean zela. Era batera edo bestera, bai batzuk eta bai besteak, ezin punturik gehitu.

**Gabriel Elorriaga Dka.**

**Loditasuna • Zelulitia  
Zelulolipolisiaren  
tratamendua**

Santa Kruz, 24-1\* (1°C Eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde, 23-2. Ezk.  
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90



# Eraginkortasuna eta kalitatea hezkuntzan

**B**erez, esan daiteke hezkuntza zentru bat kalitatezkoa dela, bertan ematen den hezkuntza kalitatezko hartu ahal bada. Eta Zentrua esatean, funtsean, ez ditugu lekuak eta bitartekoak bakarrik aipatu nahi, baizik eta izate biziduna dela, bizia bertan lan egiten duten guztiengandik jasotzen duena. Hori horrela, Hezkuntza Zentruetan eta bertako hezkuntza prozesuaren kalitatea, bere giza-taldearen kalitatearekiko harreman zuzenean egongo da.

Hezkuntza zentrua bizierazten duen giza-taldearen kalitatea, lehenik, zentruarekiko benetan konprometa-



tzeko duen gaitasunean islatzen da, Hezkuntza Komunitate osoarentzat proposatzen dituen helburu eta helmugak bereganatu eta egokitzen dituela, zentru bakoitzaren errealitatearen arauera.

Bigarrenez, hezkuntzaren kalitatea ikastegian ezartzen

diren giza-harremanen kalitatean ikusten da. Giza-harreman positibo hauek proposatzen diren helburuak pertsonalki eta modu sortzailean bereganatzeko behar den hezkuntza giroa sortarazten dute.

Hirugarrenik, ikastegiaren giza-taldearen kalitatea

eta, beraz, bere hezkuntz-kalitatea, duen eraginkortasunaren menpean dago; hau da, kalitatezko helburuetatik abiatuta, proiektu koherentea diseinatzeko eta, ebaluaketa jarraituzko prezesu baten ondoren egin beharreko zuzenketetan oinarrituta, aurrera eramateko duen gaitasunare menpe, hain zuzen. Guzti hau horrela bada, gizatalde eraginkorra izango dugu begi aurrean, ekintza efikazak burutzeko gai, talde-lanean —eraginkorrak izan daitezten— eta zuzendaritza gaituak koordinatuta.

JOSE LUIS RUBIO  
SAN VIATOR IKASTOLAKO  
ZUZENDARIA  
HEZIBIDE

## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18





*la merced*  
IKASTETXEA

**100 URTE**  
**Kalitatezko irakaskuntza emanaz**  
**Pertsona, bere osotasunean heziz**

• **Heziketa ikastetxea**

Kontzertatua  
Mixtoa  
Eskolaurrea (3 urtetatik)  
OHO

• **Irakaskuntza ereduak**

“B” elebiduna  
“D” euskara

• **Zerbitzuak**

Tutoretza eta orientazio prozesua bereziki zaindua  
Heziketa bereziko ikasgela  
Informatika tailerra  
Ikus-entzunezko gela  
Liburutegia  
Jangela  
Laborategiak

• **Beste ekintza batzuk**

Barnetegiak  
Antzerkiak  
Erakunde ezberdinetara bisitak  
Irteera kulturalak

• **Eskolaz kanpoko ekintzak**

Guraso Elkartearen laguntzaz  
Psikomotrizitatea  
Multikirola  
Zeramika, dantza, abesbatza  
Marrazki eta pintura  
Hitzaldiak

Informazio gehiago nahi baduzue, etor zaitezket  
“La Merced” Ikastetxera  
Tfnoak: 79 27 73 eta 79 20 92



# Jaztenen bilduma eta Almenen 25 urte

**J**azten aldizkariak kar-peta berri bat atera du orain arteko 6 aleak biltzeko: "Un futuro para nuestro pasado" liburuaren aurkezpena, lehen alea; "Irakaskuntza, hizkuntza eta gizartea" bigarrena; "Zer da AED? Zer dago bere atzetik?" hirugarrena; "Gazteak eta euskara", "Munduan eleaniztasuna nagusi"; eta azkena "V. Mendeurrenean, Gora nazio etnikoak! Behera estatu zaharrak!". Bildumak 2.000 pezetako balio du eta honez gain 3 bideo-zinta ere atera dituzte 5.500 pezetatan.

**A**lmen ikastolak atzo aurkeztu zuen iaz 25. urteurrena izan zela eta argitaratu berri duen liburua. Bertan, urte hauetan zehar Ikastolaren historia izan dena laburtze da, eta gaur egungo ikasle eta gurasoen artean banatzeaz gain, garai bateko ikasleekin harremanetan jartzea da Ikastolakoen nahia, euren ere osatu duten historia horren oroigarri bat izan de-

zaten. Horrela, Almeneko idazkaritzan izango du interesik duen edonork 95 orrialdeko liburu hau.

Edukia prestatzeko materiala aukeratu eta erredakzioa egiten, irakasle,

ikasle eta ikasle ohi talde bat ibili da hilabetetan zehar, hasierako egoeratik abiatu, egungo ezaugarrietan zehar etorkizunerako nolako Almen ikusten den.

Ikastolaren historia kon-

tatzen den zatian ikasturte ezberdinetako argazki sorta zabala eta orduko heziketa sistemari buruzko datuak agertzen dira, beharbada ikasle eta irakasle ohientzat zatirik erakargarriena izan daitekeena. Beste zati bat elkarrizketek osatzen dutena da: Aita Ambrosio, Jabier Mongelos, Ebaristo eta Balen, Jon Sarasua, Xeli Mendizabal eta M<sup>o</sup> Luisa García. Azkenik, etorkizunari buruzko gogoeta batzuen aurretik, 25 urteurreneko ospakizunak jasotzen diren atala ere badu liburuxkak.




**Zure ametsa egia bihurtuko da.**

**Eros ezazu etxe bat Landetan (Capbreton-en) 7.000.000 PTAgatik.**

**GARANTIA OSOA.**

**Lucio Granados.**

**Tfnoa: 79 62 44**





◆ **Laud kontzertua**

Bihar larunbata arratsaldeko 8etan, San Juan Bautista parrokian, Laud kontzertua izango da "La Orden de La Terraza" orkestarekin. Betiko laudarekin beste mota batzuk ere konbinatzen dituzte: sopranoak, kontraltoak, tenoreak eta baritonoak. Gaur egun, 18 partaidek osatzen dute orkestra, gehienak 20 urtetik beherakoak.

◆ **Gorosarri Cataluniara**

Eskoriatzako Gorosarri abesbatza Bartzelonako Capellades herrira joango da martxoaren 20tik 22ra, hango *Noves Veus* abesbatzak gonbidatuta. Abesbatzako 35 lagunek osatutako taldea izango da herri kataluniarrean polifonia eta folklore euskaldun eta katalaneko obrak eskainiko dituen eta bidaiari zehar bisita berezi batzuk ere badaude pentsatuta, hala nola Bartzelona hiriburua, San Sadorní d'Anoia eta Montserrat. Azken horretako kolegiatan ere kantatuko ei dute zerbait. Gonbidapena trukatzeko alde-ara, maiatzean katalanak etorriko dira Eskoriatzara.



**Jose Arenas**

**Kuadroekin Valladolid-etik**

Valladolidetik etorritako pintura erakuslea dugu Jose. Kanpora irtetzen den lehen aldi honetan 19 kuadro aurkezten ditu Monterroneko erakusketa aretoan.


— Noiz eta nola hasi zinen pintatzen?

— Txikitatik izan dut zaletasun hori. Eskolan marrazkiak egiten genituen, baina bereziki ikasgai hori besteak baino gehiago gustatzen zitzaidan. Gero Arte Ederretako adarra aukeratu nuen baina ez pintura sailean, egurra lantzen baizik. Geroago sartu nintzen pinturan eta hasieran nire kabuz pintatzen nuen, besteekin kontatu gabe, erakusketarik egin gabe.

— Eta zure lehen erakusketaz, gogoratzen zara?

— Bai, beste pintore batzuekin egin nituen nire lehen erakusketak. Nire kuadro batzuk agertzen ziren baina errepresentatzailerik modura bakarrik. Gero bai Valladoliden eta inguruko herrietan hasi nintzen erakusketak egiten. Baina handik kanpo, hau da egiten dudana lehena.

— Nola heldu zara Arrasatera eta nolako harrera izan duzu?



— Hemengo lagun batzuen bidez izan nituen lehengo harremanak eta gero hemen erakusketa egitea proposatu zidaten. Jendearen aldetik laguntza handia izan dut, bai pertsonalki bai erakusketa montatzeko. Kuadroak ikustera etortzen direnek interes handia erakusten dute. Orohar Arrasaten kultura maila altua ikusi dut, pintura arlo honetan behintzat.

— Nola definituko zenuke zure estiloa?

— Ez zait gustatzen nire pinturari etiketarik jartzea, ez eta definitzea ere. Orokorri fase modernoan sartu daiteke baina nahiago dut bakoitzak, hurbiltzen diren ikusleek, bere ondorioak ateratzea.

— Zein da zure lan prozesua, nola aukeratzen dituzu gaiak?

— Gauzak berez irtetzen dira, nik serie bat pentsatzen dut eta hortik aurrera pintatzen hasi eta serie hortako ideia desberdinak irtetzen joaten dira. Prozesu honetan kuadroak jarraian egiten ditut, ideia horren inguruan bata besteari atzean. Bestalde koloreari dagokionez, ez dut zehazki preferentziarik. Kuadro bat pintatzeko orduan kolore guztietatik niretzat egokienak aukeratzen ditut, segun ze gauzatarako baina orokorri ia denak erabiltzen ditut.

— Pinturak ematen duenarekin bizi daiteke?

— Hori da nik nahiko nukeena baina ez, beste lan batzuk ere egiten ditut: umeei klaseak eman edo enkarguetarako kartelak...Beti pintura munduarekin lotuta dauden gauzetan ibili izan naiz.

▼  
"Harrera ezinhobea izan dut Arrasaten"

**Monte taberna**  
Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56

**J. Ramón Otamendi**  
**HARATEGIA**  
Ferrerias, 20 • Tel. 79 62 28  
**ARRASATE**



Aste gazte


"Gazte elkarteek balore aurrerakoi eta jarrera parte-hartzaileak sortarazten dituzte; ideiak eta eritziak; solaskidetzazoziala eta politikoa errezten dute eta gizarte ongizatea ahalbidertzen dute".

"Joventut i lleure als 90"

Lana

• Bermeoko Udalak a) gizarte-laguntzaile bat eta b) garbiketarako 6 laguntzaile lanpostu betetzeko deialdia egin du. Betebeharrak: a) Titulazioa b) eskola zertifikatua. Epea: martxoak 23.

• Administrari-laguntzaile plaza bat, Eudel-eko Bilboko



egoitzarako. Epea: martxoak 23.

Ikastaroak

• Hargintza eta harlangintza ikastaroa Antzuolan. 18 urtetik gorako langabetuei zuzendua. Iraupena: 8 hilabete, egunean 7 ordu. Izena emateko epea: martxoak 25. Hasiera: apirilak 1.

Bekak

• "Cañada Blanch" Bekak, 1992-93 ikasturtean Bretaña Handian postgraduatu edo ikerketa-ikasketak burutzeko. Eskatzaileak: ingelesa menperatzen duten 35 urtetik beherako lizentzia-

tuak edo Goi Mailako Eskola Teknikotako titulodunak. Ikertzeko gaia: edozein. Epea: martxoak 27.

• Emakumearen egoera sozialari buruzko doktorego-tesiak burutzeko bekak. Eskatzaileak: lizentziatuak (88-89tik aurrera). Dirulaguntza: 1.000.000 PTA. Epea: apirilak 3.

Lehiaketak

• "Ibai-arte" rako (herriko erdialdeko merkatarien elkarterako) Logotipo-Lehiaketa. Din-A4 formatoan, teknika libre. Sari bakarra. 40.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: martxoak 31.

• Urretxu-Zumarragako

VII. Antzerki Astea iragaritzeko kartel-lehiaketa. Teknika libre. Neurriak: 60x40. Sari bakarra: 40.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: apirilak 3.

• Ipuin eta Poesia lehiaketak, 30 urtetik beherakoei zuzenduak. Gaztele-raz, gai libre. Ipuinak: 3-8 orrialdetakoak. Poesiak: gehienez, 100 lerro. Sariak 50.000 PTA modalitate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea: apirilak 14.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

OM 1224  
FM 99'8

ENTZUN!

HERRIZ HERRI  
Larunbatero  
11.30 etan

HERRI Irratia



Radio POPULAR  
GIPUZKOA



## ETXEBIZITZAK

- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza. Logela bat libre dago. Dei egin 81 66 24 tfnora.
- Hiru pertsonentzako etxebizitza behar dugu Arrasaten. Tfnoa: 79 48 11. Oskar eta Blanka.
- Etxebizitza salgai. Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.
- Lau gelako etxebizitza behar da alokairuan. Tfnoa: 79 33 59.
- Pertsona bat behar da hiru irakaslerekin pisua konpartitzeko. Dei egin ordubatek 2etara. Tfnoa: 79 71 16.

- Aretxabaletan neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 77 85.
- Andre euskalduna gertu umeak zaindu, etxeko lanak egiten eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- Neska ala emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko Aretxabaletan. Tfnoa: 79 49 44.
- Ostiral edo larunbatetan ingelesa erakusteko norbait behar dut. Tfnoa: 79 38 01.
- 23 urteko neska gertu etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 97 30.
- Fisikako klase partikularrak emateko fisikaria behar da (Euskaraz edo erdaraz). Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- Esperientziadun emakume euskalduna ospitalean gaisoak zaintzeko gertu. Gaez nahiz egunez. Tfnoa: 79 34 51.

- 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbatera bitartean 94 - 658 34 94 tfnora.
- Eski alpino egiteko bota pare bat salgai. 43a berri-berriak, bi hilabete besterik ez dituzte. Tfnoa: 76 38 72.
- Mendiko Camet bota (44 zenbakikoak) pare bat salgai. Erabili barik eta oso merke. Tfnoa: 76 24 64. Joxemiel.
- Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke. Interesatuak dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- la berria dagoen akordeoia salgai. 120 baxu. Beltza. Dei egin gaez 79 80 91 tfnora.
- Txakurkume politak salgai 5.000 PTAtan. Oso politak dira. Tfnoa: 79 90 87.

## DENETARIK

- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnoa.
- Buzoneoa egiteko prest. Enpresa eta erakundeen iragarkien banaketa egiten dugu. Dei egin goizez 79 35 02 tfnora.
- Ehiza-txakur bat erregalatuko nuke, txerretuta dago, eta urtebete du. Dei egin 76 64 47 tfnora.
- Otsailaren 4ean Urkulun eguzkitako betaurrekoak galdu nituen bostak aldera. Inork aurkituz gero, dei dezala 79 21 50 tfnora.
- Urrezko kate bat topatu dugu kalean, zurea bada dei egin 7etatik aurrera 79 33 35 tfnora.
- Egunero Bilbora joateko kotxe baten tokia behar dut. Tfnoa: 79 31 47.
- Musika talde afizionatu batek teklista behar du. Tfnoa: 73 01 17.
- Urrezko belarritako galdu da. Inork aurkituz gero dei dezala 79 53 21. Saritua izango da.
- Zorionak 5 urte betetzean Portugaleteko Nagoreri Arrasateko senide guztien partez.

## LANA

- Errusierako klaseak ematen dira. Dei egin 79 78 75 tfnora.
- Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. (Bai erdaraz eta baita euskaraz edo ingelesez ere). Tfnoa: 79 62 89.
- Aretxabaletako Dis-Tel oihaldendak esperientziadun jostuna behar du. Dei egin 79 48 49 tfnora.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke, orduka edo egun guztiz. Tfnoa: 79 54 03.
- Neska bat behar da ingelesa erakusteko. Tfnoa: 77 10 59.
- Esperientziadun pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 77 10 59.
- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu neska gaztea. Tfnoa: 79 99 17. Mª Jesus.

## SALEROSKETAK

- Gezi moduko kitarra elektrikoa distortsio eta guzti salgai. (Gorria eta beltza). Baita pedala eta Aria markako anplifikadorea ere (berria dago), 50 W. AG-35 R modelokoa. Dei egin 79 39 92 edo 945 - 26 28 01 tfnoetara.
- Alpen Kreuzer Super GT kanping erremolke-denda salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 945 - 44 50 43 tfnora.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailua salgai. Dei egin 79 57 93 tfnora egunez edo 79 82 28 gaez.
- Monty markako trial-sin bizikleta salgai. Hiru urte t'ardi ditu eta oso egoera onean dago. 35.000 PTA. Tfnoa: 79 01 94.
- la berria dagoen arko-i-zozkailua eta urte t'erdiko pixu bat eta kutxa erregistradora bat (3 urtekoa) saltzen dira prezio negoziagarrian. Neurriak

## ARRASATEN HILDAKOAK

Carmen Raya Gomez,  
martxoaren 5ean. 74 urte.

Felipe Unda Madinabeitia,  
martxoaren 5ean. 57 urte.

Eugenio Abarrategi Mujika,  
martxoaren 6an. 86 urte.

Ma Dolores Serrano Lizarralde,  
martxoaren 6an. 74 urte.

Juan Pedro Vega Gorostiza,  
martxoaren 7an. 48 urte.

Genoveva Rioja Bartolome,  
martxoaren 10ean. 91 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15



# Bertsotan

Kontsumitzailearen eguna


1

Kontsumitzaile denon eguna da datorren igandea alda dezagun gauza horrekiko daukagun jokabidea. Produktu batek ez duenean behar den kalidadea izan dezagun behintzat guztiok salatzeke eskubidea.

2


Tomate ustel, ogi lizuna ta pasatako txuletak halako gauzak ez pentsa behintzat direnikan berriketak. Nahiz igandean hainbatek egin horri buruz gogoetak egun honetara ez daitezela muga gure salaketak.

AGURTZANE INURRATEGI



# Zer nahiago?

## Rosita Bergaretxe Musakolako Kontxo okindegikoa



- **Baserria ala kaleko etxea?** Baserria gustatzen zait baina egun batzuk pasatzeko. Kaleak beste komodidade batzuk ditu.
- **Alabak ala semeak?** Biak. Hor modak eragiten du, lehen semeak zeuden modan, orain alabak. Niri berdin zait.
- **Erosketetan gizonarekin ala alabarekin?** Gizonari ez zaio gustatzen, beraz alabarekin.
- **Ogi zati bat ala pastela?** Ogia asko gustatzen zait baina batzutan pastela ere jaten dut.
- **Kaleko pintadak ala kartelak?** Kartelak garbiagoak direlako, baina beharbada pintadek esanahi gehiago izango dute.
- **Seguruko medikua ala pribatua?** Segurukoa, baina ez naiz medikuen aldekoa, badaude osatzeko beste metodo batzuk.
- **Bidai bat egitekotan, atzerrira ala bertako edozein tokitara?** Hemendik kanpo behintzat, eguzkia dagoen toki batera.
- **Arrasateko auzoa ala erdigunea?** Auzoa. Beharbada ez auzo hau konkretuki baina, bai, auzoa.
- **Ikastaro baterara joatekotan, sukaldaritza ala pinturakoa?** Pinturan ez dut ideiarik, baina bai, hori aukeratuko nuke.
- **Ekologista ala ehiztarien alde?** Ekologisten alde dudarik gabe.
- **Anboto ala Udalaiz?** Bietatik Anboto. Udalaiz ez zait gustatzen. Niretzat Urbia da gustokoena, paradisua da.
- **Euskera ikasteko euskaltegia ala baserria?** Baserria. Hori da jendeak egin behar duena, euskera ikasi.
- **Eskiatzea ala eskalatzea?** Bat ere ez, baina bat aukeratzekotan, eskiatzea.
- **Dieta ala kirola egin?** Biak egiten badira ondo dago, baina batez ere kirola.
- **Zezenketa ala sokamuturra?** Bat ere ez, bien kontra nago.

Osorik  
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

JOSTEKO



OIHALAK

Errekabarren, 20  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 80 90

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra,  
belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11  
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate





Valentzian, 1944ean

**J**

usti eta Mirentxu Arenaza dira argazkikoak, Vasquita I eta Vasquita II. Arrasateko pilotarien artean asko dira ezagunak baina

herritar askok badaiteke garai bateko raketisten berririk ez izatea. Vasquita I. Madriden hasi zen raketarekin jolasean 1932an, baina gerora Espainian zehar frontoi ezberdinetan ibili zen. Valentziako Txiki pilotalekuan atera zuten argazki hau 1944ean ahizpa biek han jokatu zutenean.

Bi ahizpa horietaz gain, baziren beste raketista batzuk ere arrasatearrak: Margo eta Juanita Arenaza, Vasquitaren lehengusuak, Quinita eta Txikita de Cestona, garai bateko Gurea Frontoiko kantxeroaren alaba. Emakume pilotariak asko omen ziren garai haietan, eta euren esanetan, ez besteak baino hobeak zirelako, baina ikuslegoari asko gustatzen zitzaion euskaldunek zuten jokatzeko era.

Jantziari buruz, nahikoa komeria erabili ei zuten gona luzeagoetatik argazkiko horietara aldatzeko, eta baita galtzerdi luzeak albora utzi eta galtzetinekin hasteko ere. Oinetakotan, Arrasaten egindako abarkak izaten ei ziren denetan onenak.

**URONDO**  
elektrizitatea



- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE


**UGARTE**

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412



# Gurutzegrama




## Horizontalak

1. Dultzainaren antzeko musikatresna
8. Arrasateko erdigunean
10. Larrialdia
11. Israeleko hiria
12. (Ald.) Errezeloari
14. Musika nota
15. Rutenioa
16. 1. eta 5. bokalak
17. Iparraldeko ikastola

## Bertikalak

1. 4. hilabetea
2. Lo egitera
3. Txantxa
4. Otearen lore
5. Mendia (767 m)  
Elgoibarren M.an
6. Aldapa hasieran
7. Gipuzkoako Udala
9. Garrasiak
13. Garra




JUAN BAUTISTA AGORRIA

# BIDEO-EMANALDIA

# Gremlins

**Tokia:** Monterron Kultur Etxea  
**Eguna:** martxoak 14, larunbata  
**Ordua:** arratsaldeko 4.30etan  
**Prezioa:** 50 pezeta  
**Sarrerak:** Monterronen  
**Antolatzailea:** Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea







# Telebegi

Arraro xamar joan zaigu aste hau ATBn. Arraro difot, zorionez eta zoritxarrez inoiz baino telefono dei gehiago jaso ditugulako.

Zorioneko deiak, mondrauetarrok etxe honetara deitzeko ohitura hartu duzuelako. Seinalea gure saioak ikusten dituzuela, ikusi eta entzun; eta seinalea, beraz, mondrauetarroi inporta zaizuela zer eta nola egiten ditugun gauzak zuen telebista honetan. Milaesker, benetan!

Zoritxarreko deiak ere izan dira, ordea, guztiak kejatuz etorri direlako, hau dela edo bestea dela, batzuk arrazoiak, besteak ez hainbeste. Argi utzi beharrekoa da ATBn noiz edo noiz, gutxienetan nik uste, hanka sartzen dugula. Eta sentitzen ditugu hankasartze hoiak, eta sentitzen ditugun neurri berean ez daukagu inolako arazorik gero okerrak zuzentzeko. Baña hanka sartze hoiak atzean izkutuko intentzioak bilatzen ibiltzea ere... horraitio!!

ATBn lau katu gaude lanean gaur egun, eta zoroak pare ibiltzen gara, ahalik eta leku gehienetara heldu eta zuei ahalik eta saio borobilenak eskaintzeko. Gogoratu hori, eta...

Gaizki esanak barkatu, eta ondo eginak kontutan hartu eta gozatu.

Azken finean, ze demontre, zuon telebista garelako. Akats eta guzti.

JON ANDUEZA

## Asteko zinea

### Abereen etxaldea

Hortxe jarraitzen dugu ATBn astero pelikula bat zuenganatzen. Datorrenerako aukeratu duguna, Abereen etxaldea, George Orwell-en nobelan oinarritutako marrazki bizidunak.

Txikitxo, eta ez hain txikitxoaren gozamenerako, beraz, hortxe izango dituzue aukeran Napoleon eta bere laguneren abenturak.

Astelehenetik asteazkene-ra, 9.50etan, ATBn!

## Erreportaiak

- Jon Ugalde
- Udaberria

**Asteartean**  
**9.20etan**

## Txatxaran

Ane Miren Axpe,  
bibolinjolea

**Asteazkenean**  
**9.15etan**

## Zubia

**ATBn atsedena hartuko dugu datorren ostegunetik igandera. Igande gauean itzuliko gara, Mondragolekin**

## Programazioa

1

### IGANDEA

9.15. **Mondragol.** Mondra-Zalla partiduaren ordu erdiko laburpena, Jose Luis Ezkurraren ardurapean.

2

### ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** ATBren albiste-emanaldia.  
9.15etan, **Mondra Sport.** Arrasateko kirol-munduaren errepasoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uribesalgorekin.  
9.50. **Asteko zinea:** Abereen Etxaldea.

3

### ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.**  
9.15. **Erreportaiak.** Aste honetako gaiak: Udaberria, eta Jon Ugalde, egunero Udalaiztera joaten den mondrauetarra.  
9.50. **Asteko zinea:** Abereen Etxaldea.

4

### ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** ATBren albistegia.  
9.15. **Txatxaran.** Maider Egués-ek zuzendutako elkarrizketa saioa. Aste honetako gonbidatua: Ane Miren Axpe, bibolinjolea.  
9.50. **Asteko zinea:** Abereen Etxaldea.

5

### OSTEGUNA

Ez dago programaziorik

6

### OSTIRALA


Ez dago programaziorik.



# IKASTOLA a u z o k o a !

## ERDIALDEA


2 urtetik 12 urtera arte.



Gazteluondo.

## MUSAKOLA


2 urtetik 12 urtera arte.




San Antolin.

## URIBARRI

2 urtetik 12 urtera arte.




Uribe auzoa.




Olarte.



Santa Teresa.



Uribarri.



Ferixalekua.  
12 urtetik  
16 urtera arte.

IKASTOLA

*Jakina!*

SAN FRANTZISKO XABIER

IKASTOLA

Gazteluondo, 4

Tfnoa: 79 26 40

ARRASATE